



Euskararen egoera Sakanan

2007

Azterlan soziolinguistikoak

2012 ZUREKIN
BAGOAZ AURRERA



Nafarroako
Gobernua

Euskararen egoera
Sakanan

2007

Azterlan soziolinguistikoak

Euskararen egoera Sakanan

2007

Azterlan soziolinguistikoak

Izenburua: Euskararen egoera Sakanan - 2007

© **Nafarroako Gobernua. Hezkuntza Departamentua**

Euskarabidea/Instituto Navarro del Vascuence

Disenua eta maketazioa: nabarrerria.com

Inprimategia: Ona Industria Gráfica S.A.

Lege-gordailua: NA 924/2009

AURKIBIDEA

AURKEZPENA	9
SARRERA	11
1 - EUSKARA SAKANAN: IKUSPEGI OROKORRA	15
2 - SAKANDARREN HIZKUNTZA PROFILAK.....	19
2.1.- Hizkuntza gaitasuna.....	19
2.2.- Hizkuntza profila	21
2.3.- Maizenik erabilitako hizkuntza	24
3 - EUSKARA: TRANSMISIOA ETA ERABILERA.....	27
3.1.- Euskararen transmisioa	27
3.2.- Euskaldunak euskaraz zenbat mintzatzen diren	30
3.3.- Euskara eta euskaldun ez direnak	37
4 - EUSKARA ESKUALDEAN SUSTATZEA	39
4.1.- Herritarrek euskara sustatzeko lanetan parte hartzea.....	40
4.2.- Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuaren balioespena	41
5 - HERRITARREK EUSKARAREN AURREAN DUTEN JARRERA, ETA ETORKIZUNEKO IKUSMOLDEAK	43
5.1.- Euskararen erabilgarritasuna	43
5.2.- Euskararen etorkizuneko ikusmoldeak eskualdean	45

Aurkezpena

Euskarabideak, Hezkuntza Departamentuaren mendeko erakunde autonomoa denak, bere eginkizunen artean honako hau du: euskarak Nafarroan duen errealitate soziolinguistikoaren gaineko azterlanak, ikerketak eta estatistikak proposatzea, koordinatzea eta egitea. Hau guztia Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legeko 5.3 artikulua betetze aldera.

Agindu hori betetzeko asmoz, hainbat inkesta soziolinguistiko aldizka egin dira. Hauek dira azpimarratzeak:

1. *Nafarroako euskarari buruzko azterlan soziolinguistikoa. 2003. Hizkuntza gaitasuna, erabilera eta jarrerak.*
2. *Azterlan soziolinguistikoa Iruñean eta Iruñerrian. 2006. urtea.*

Hemendik gutxira *Euskarak Nafarroako Foru Komunitatean duen egoerari buruzko azterlan soziolinguistikoa, 2008. urteari dagokiona, argitaratuko da.*


Ildo horren barruan dago euskarak Sakana aldean duen egoeraren gainean egindako azken lana. Lan horrek Foru Komunitateko alderdi horretako egoera soziolinguistikoa hobeki ezagutzen laguntzen duten hainbat datu erakusten ditu.

Azterlan honek eskualdeko euskararen ikuspegi orokorra biltzen du. Besteak beste, dauden hizkuntza profilak, hizkuntza gaitasuna, hizkuntzaren transmisioa eta erabilera, biztanleek hizkuntzaren aurrean duten jarrera eta etorkizunerako ikusmoldeak azaltzen dira.

Azterlan honetako ondorioen artean, honako hauek azpimarra ditzakegu: inkestari erantzun dioten lagun guztien %61,2k adierazi du euskaraz dakiela (ehunekoa %92ra igotzen da 15 eta 24 urte bitarteko gazteen artean); inkestaturiko populazioaren gehiengoak euskararekiko jarrera positiboa erakusten du; inkestaturiko populazioaren %63,9k modu positiboan baloratzen ditu euskara sustatzeko egiten diren jarduerak; eta inkestaturiko populazioaren %55,5i gustatuko litzaioke etorkizunean eskualdean euskara eta gaztelania maila berean hitz egitea.

Azkenik, espero dut azterlan honetako datuak baliogarriak izanen direla Nafarroako alderdi honetako errealitate soziolinguistikoa hobeki ezagutzeko, bai eta euskara bultzatzeko ekintzak gauzatzeko ere.

Xabier Azanza Arbizu
Euskarabideko zuzendari kudeatzailea



Sarrera

Lan honen helburu nagusia da Sakanan bizi diren 15 urtetik gorako sakandarren hizkuntza gaitasuna zein den ezagutzea. Horretarako inkesta egin da telefonoz banan-banan galdetuz, galdera-sorta egituratu eta itxi baten bidez.

Lagina Nafarroako Estatistika Institutuak hautatu du, adinaren, sexuaren eta bizitokiaren arabera irizpideei jarraikiz.

Landa-lana 2007ko bukaeran hasi eta 2008ko hasieran bukatu zen.

Inkesta 1.045 pertsonari egin zitzaien, sexuaren eta adinaren aldagaien arabera banaturik. Geografikoki, inkestak honela banatu ziren: ARAKIL (301 – %28,8), ARANATZALDEA (271 – %25,9) eta BURUNDA (473 – %45,3).

Emaitzak Sakanan bizi diren 15 urtetik gorako biztanleriarekin haztatu dira, 2007ko uztailaren 1eko erroldako datuen arabera. Biztanle-kopurua 17.588 pertsonakoa izan da.

Inkestaren helburuak:

a. Euskararen transmisioa eta erabilera familian, lanean, auzokoen artean. Baita esparru publikoan ere.

b. Eskualde honetan euskararen gainean zer jarrera dagoen jakitea.

Euskararen egoera
Sakanan



Euskara Sakanan: ikuspegi orokorra

1986an, Nafarroako Parlamentuak Euskarari buruzko 18/1986 Foru Legea onetsi zuen. Lege horrek euskara eta gaztelania ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea onartzen die nafar guztiei. Hartara, lurraldearen zati batean bi hizkuntza horien koofizialtasuna ezarri zuen, Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoko 9. artikuluan ezarritako moduan.

Lege horretan ezarritako hizkuntza eskualdeen arabera, Sakanako herritarrak **eremu euskaldunean** bizi dira. Eskualdeak 15 udalerrri ditu: Irurtzun, Arakil, Irañeta, Uharte Arakil, Lakuntza, Arruazu, Ergoiena, Arbizu, Etxarri Aranatz, Bakaiku, Iturmendi, Urdiain, Altsasu, Olazti eta Ziordia.

2007ko urtarrilaren 1eko Erroldaren arabera, Sakanan 20.086 pertsona bizi dira, hau da, Nafarroako Foru Komunitateko biztanle guztien %3,3. Biztanle horietatik %86,3k (17.341 pertsona) 15 urte edo gehiago dituzte. Horietatik %52,1 gizonezkoak dira eta %47,9 emakumezkoak.

Adinari erreparaturik, laginaren %30,4 35 urtetik beherakoak dira; %35ek 35 eta 54 urte bitartean dituzte eta, azkenik, %34,7k 55 urte baino gehiago dituzte.


Inkestari erantzun dioten gehienak honako hiru herri hauetan bizi dira: Altsasu (%37,5 - 6.496 pertsona); Etxarri Aranatz (%12,1 - 2.099 pertsona) eta Irurtzun (%10,7 - 1.853 pertsona). Gainerako udalerrriak azken ehuneko horretatik behera daude.

1. koadroa. 15 urtetik gorakoak, sexuaren eta Sakanako udalerrien arabera banatuak.
(zifra absolutuak: % bertikalak eta % horizontalak)

	Biztanleria		Sexua	
	z.a.	%b.	Gizonezkoak	Emakumezkoak
			%h.	%h.
Altsasu	6.496	37,5	51,3	48,7
Arakil	793	4,6	54,7	45,3
Arbizu	855	4,9	63,5	46,5
Arruazu	96	0,6	55,2	44,8
Bakaiku	291	1,7	54,6	45,4
Ziordia	304	1,8	46,4	53,6
Etxarri Aranatz	2.099	12,1	51,2	48,8
Ergoiena	398	2,3	55,3	44,7
Uharte Arakil	682	3,9	54,3	45,7
Irañeta	148	0,9	57,4	42,6
Iturmendi	318	1,8	51,3	48,7
Lakuntza	969	5,6	52,6	47,4
Olazti	1.506	8,7	53,5	46,5
Urdiain	533	3,1	52,5	47,5
Irurtzun	1.853	10,7	51,2	48,8
Sakana, guztira	17.341	100,0	52,1	47,9

Azkenik, ondorengo mapa hauetan Sakanaren egoera ageri da, inguru hurbilari eta udalerriei dagokienez. Halaber, udalerri horiek azterlan honetan erabiltzen diren eremuetan sartu dira:





- | | | |
|--------------------|-------------------|---------------|
| 1- Ziordia | 11- Dorrao | 21- Ekai |
| 2- Olazti | 12- Lakuntza | 22- Etxarren |
| 3- Altsasu | 13- Arruazu | 23- Urritzola |
| 4- Urdiain | 14- Uharte Arakil | 24- Etxeberri |
| 5- Iturmendi | 15- Irañeta | 25- Irurtzun |
| 6- Bakaiku | 16- Ihabar | 26- Aizkorbe |
| 7- Etxarri Aranatz | 17- Hiriberri | 27- Izurdiaga |
| 8- Arbizu | 18- Satrustegi | 28- Errotz |
| 9- Lizarraga | 19- Zuhatzu | |
| 10- Unanu | 20- Egiarreta | |

2. koadroa. Sakanako udalerriak, eremuka antolatuturik.

ARAKIL	BURUNDA	ARANATZ
Arakil	Altsasu	Arbizu
Arruazu	Bakaiku	Ergoiena
Irañeta	Iturmendi	Etxarri Aranatz
Irurtzun	Olazti	-
Lakuntza	Urdiain	-
Uharte Arakil	Ziordia	-



Sakandarren hizkuntza profilak


Biztanleen euskararekiko hizkuntza profila honako bi azpiatal hauetan aztertu da:

- Hizkuntza jakitea:** ulertu, hitz egin, irakurri eta idatzi.
- Sakandarrek euskaraz dituzten ahozko gaitasunak:** *euskaldun zaharrak* (euskara ama hizkuntza duten euskaldunak), *euskaldun berriak* (euskara ama hizkuntza ez duten euskaldunak, hots, euskara helduaroan ikasi dutenak), *euskaraz ikasten ari direnak* eta *euskaraz ez dakitenak* (erdaldunak).

2.1.- Hizkuntza gaitasuna¹

Deskribatutako hizkuntza gaitasun bakoitza banan-banan aztertu ondoren, esan daiteke inkestari erantzun diotenen erdiek baino gehiagok ez dakitela euskaraz, ez idazten, ez irakurtzen, ez hitz egiten. Euskara ulertzen dutenak euskararik ulertzen ez dutenak baino zertxobait gehiago dira.

1. grafikoa. Sakandarren hizkuntza gaitasuna. (% bertikalak)



Iturria: Euskararen egoerari buruzko Sakanako azterlana. 2007

Banaketa geografikoa:


Aranatzaldea: inkestari erantzun dioten gehienek ongi dakite euskaraz jakintza-maila guztietan; bereziki azpimarratzekoak dira ulermena eta solasaldia.

Arakil: inkestari erantzun dioten gehienek ez dakite euskaraz. Ulermenari dagokionez, euskaraz ongi ulertzen dutenak deus ez ulertzen dutenak baino gehiago dira.


Burunda: inkestari erantzun dioten gehienek ez dakite euskaraz.

¹Hizkuntza bat ulertzeko, hitz egiteko, irakurtzeko eta/edo idazteko herritarrek dituzten trebetasunei dagokie hizkuntza gaitasun hau.


2. grafikoa. Arakildarren hizkuntza gaitasuna. (% bertikalak)



3. grafikoa. Aranaztarren hizkuntza gaitasuna. (% bertikalak)



4. grafikoa. Burundarren hizkuntza gaitasuna. (% bertikalak)



Iturria: Euskararen egoerari buruzko Sakanako azterlana. 2007

a) Hizkuntza gaitasunak, generoaren arabera:

Euskaraz ongi ulertzen, hitz egiten, irakurtzen eta idazten duten emakumezkoak gizonezkoak baino gehiago dira.

Euskaraz deus ez dakiten gizonezkoak emakumezkoak baino gehiago dira.

Euskararekin zailtasunak dituzte gizonezkoak eta emakumezkoak, proportzio berean.

Banaketa geografikoa:

Aranatzaldea: emakume baino gizon gehiagok ongi ulertzen dute euskaraz.

Burunda eta Arakil: ez da genero desberdintasunik antzematen eskualdea bere osotasunean harturik dagoe-narekin alderaturik.

b) Hizkuntza gaitasunak, adinaren arabera:

Gazteagoek zaharragoek baino hizkuntza gaitasun handiagoak dituzte:

34 urte arte: nagusi dira euskaraz ongi ulertzen, hitz egiten eta irakurtzen dutenak.

34 urtetik gora: ehuneko arian-arian murrizten da (55 urtetik gora, zertxobait egiten du gora ehunekoak solasaldian, nahiz eta gutxienak izan euskaraz deus ez hitz egiten dutenekin alderaturik).

Idazkerari dagokionez, gazte jendearen joera nagusia bere hartan mantentzen da 24 urte bete arte soilik.

3. koadroa. Sakandarren hizkuntza gaitasuna, adinaren arabera. (% bertikalak)

	Adina				
	15 - 24 urte	25 - 34 urte	35 - 54 urte	55 - 64 urte	65 urte edo gehiago
Ulertzen du					
Deus ez	7,4	23,3	41,5	51,9	55,8
Zailtasunez	18,3	23,7	25,6	19,5	14,2
Ongi	74,3	53,0	32,9	28,6	30,1
Hitz egiten du					
Deus ez	16,4	40,7	57,1	64,0	64,00
Zailtasunez	16,6	16,2	20,2	9,6	10,3
Ongi	66,9	43,1	22,7	26,5	25,6
Irakurtzen du					
Deus ez	21,4	43,2	65,8	72,1	72,6
Zailtasunez	9,3	13,3	16,5	12,5	17,0
Ongi	69,3	43,5	17,7	15,4	10,5
Idazten du					
Deus ez	20,6	45,8	68,9	77,0	77,2
Zailtasunez	12,4	12,9	15,9	9,4	16,1
Ongi	67,0	41,4	15,1	13,5	6,7

Iturria: Euskararen egoerari buruzko Sakana azterlana. 2007

Banaketa geografikoa:**Aranatzaldea:**

Aranaztar gehienek euskaraz ulertzen eta hitz egiten dute. Hala ere, 35 urtetik gora gutxi dira irakurtzen eta idazten dakitenak.

Nagusi dira euskaraz ulertzeko eta hitz egiteko gai direnak (%70 - %90); 15 urtetik 34 urte bitartekoak eta gutxiago tarteko adin-tarteetan daudenak.

Irakurketa eta idazketa: inkestari erantzun dioten 34 urtetik beherako pertsonak esan dute badakitela irakurtzen eta idazten euskaraz, baina adin horretatik gora marjinak asko murrizten dira.

Arakil:

34 urtetik beherakoak gai dira euskaraz ulertzeko eta irakurtzeko, baina adinean gora egin ahala gaitasun horiek galduz joaten dira: ulermenari dagokionez, 65 urtetik aurrera zertxobait egiten du gora.

24 urtetik beherakoak gai dira euskaraz hitz egiten eta idazteko, baina adin horretatik gora gero eta gutxiago dira.

55 urtetik 64 urte bitartean euskaraz ongi hitz egiteko gaitasunak zertxobait egiten du gora.

Burunda:

Eskualde osoko ehunekorik txikienak daude euskaraz ongi ulertzeari, hitz egiteari, irakurtzeari eta idazteari dagokienez:

34 urtetik eta 24 urtetik beherakoek, hurrenez hurren, badituzte gaitasun horiek, baina kopuru horiek arian-arian murriztuz joaten dira adinak gora egin ahala. Hala ere, zertxobait egiten dute gora 65 urtetik aurrera.


Irakurketa eta idazketa: 24 urte bete arte burundarrek badakite irakurtzen eta idazten. Inkestari erantzun diotenen adinak gora egin ahala kopuru horrek behera egiten du.

2.2.- Hizkuntza Profila²

Sakanan (eta Aranatzaldean, Arakilen eta Burundan) euskararekiko harremanak mota batekoak baino gehiagokoak dira. Jakitearen arabera, euskararekiko harremanak aldatu egiten dira eta hori banaketa geografikoan islatzen da.

+	Euskaraz ez dakitenak, euskara ahaztu dutela adierazi dutenak barne.
↓	Euskaldun zaharrek eta euskaldun berriek osaturiko multzoa.
-	Euskaraz ikasten ari direnak.

5. grafikoa. Sakandarren hizkuntza profila, euskarari dagokionez. (% bertikalak)



Iturria: Euskararen egoerari buruzko Sakanako azterlana. 2007


Banaketa geografikoa:

Aranatzaldea: euskaldunak %88 dira (gehienak euskaldun zaharrak).

Arakil eta Burunda: arakildar eta burundar gehienek ez dakite euskaraz; jarraian euskaldun zaharren eta euskaldun berrien taldea dago eta, azkenik, euskaraz ikasten ari direnak daude.

² Lau hizkuntza trebetasunetako gaitasuna: ahozkoaren ulermena, mintzamina, idatziaren ulermena eta idazmena.

6. grafikoa. Sakandarren hizkuntza profila, euskarari dagokionez, eremuka banaturik. (% bertikalak.)



Iturria: Euskararen egoerari buruzko Sakanako azterlana. 2007

a) Hizkuntza profila, generoaren arabera

Gizonek baino emakume gehiagok dakite euskaraz (10 puntuko alde).

Banaketa geografikoa:

Arakil eta Burunda: hemengo egoera eta Sakanakoa antzekoak dira (gehiago dira emakumezko euskaldunak gizonetzkoak baino Arakilen, ehunekoetan emanik).

Aranatzaldea: euskaraz berdintsu dakite gizonetzkoek nola emakumezkoek.

b) Hizkuntza profila, adinaren arabera:

Euskarari dagozkion hizkuntza gaitasunek gora egiten dute inkestari erantzun diotenen adinak behera egiten duen heinean.

Adinak gora egiten duen heinean, euskaraz ez dakitenean ehunekoak gero eta handiagoa da.

65 urtetik gorakoek euskaraz gehiago dakite 55 urtetik 64 urte bitartekoek baino (gehienak *euskaldun zaharrrak* dira).

55 urtetik gora ez da euskaraz ikasten.

4. koadroa. Sakandarren hizkuntza profila, adinaren arabera. (% bertikalak)

	Adina				
	15 - 24 urte	25 - 34 urte	35 - 54 urte	55 - 64 urte	65 urte edo gehiago
Ez daki euskaraz	24,9	44,9	63,3	68,0	66,6
Ikasten ari da	6,9	1,0	0,2	0,0	0,0
Euskaldun zaharra	44,9	32,7	22,9	27,2	32,6
Euskaldun berria	23,3	21,4	13,6	4,7	0,8

Iturria: Euskararen egoerari buruzko Sakanako azterlana. 2007

Banaketa geografikoa:

Aranatzaldea:

Inkestari erantzun dioten gehienek beren burua euskaldun zahartzat dute adin-tarte guztietan (ehunekorik handienak gazteenek eta zaharrenek ematen dituzte).

Euskaraz ez dakiten gehienek 35 urtetik 54 urte bitartean dituzte.

Arakil:

Eskualdea bere osotasunean hartuta, Arakilgo joera Sakanakoaren antzekoa da.

Euskaldun gehienek 15 urtetik 34 bitartean dituzte.

Euskara ikasteari uzten zaio 34 urtetik aurrera.

Euskaldunen kopuruak apurka-apurka behera egiten du adinak gora egin ahala eta zertxobait egiten du gora 55 urtetik aurrera.

Burunda:

Euskaldunak gazteenak dira.

25 urtetik gora euskara ikasteari uzten zaio.

Adinaren arabera gora egiten du euskaraz ez dakitenen kopuruak eta adin-tarte guztietan nagusitzen da.


55 urtetik gora euskaldun zaharren ehunekoak zertxobait egiten du gora (nabarmenagoa da 65 urtetik gora).

2.3.- Maizenik erabilitako hizkuntza³

Inkestari erantzun diotenen %61,2k euskaraz badakiela esan du.

Euskaraz zerbait dakiten sakandar gehienek gaztelania soilik erabiltzen dute elkarren artean hitz egin nahi dutenean.

7. grafikoa. Sakandarrek hitz egiterakoan maizenik erabiltzen duten hizkuntza. (% bertikalak) (Oinarria: euskaraz dakitenak)



Iturria: Euskararen egoerari buruzko Sakanako azterlana. 2007

Banaketa geografikoa:**Arakil eta Burunda:**

Euskaraz dakitenek gaztelania maizago erabiltzen dute.

Batzuek bi hizkuntzak erabiltzen dituzte.

Euskara soilik erabiltzen dutenak gutxienak dira.

Aranatzaldea:

Inkestari erantzun dioten gehienek euskara soilik erabiltzen dute ohiko komunikaziorako.

Beste batzuek gaztelania erabiltzen dute.

Gainerakoek gaztelania zein euskara erabiltzen dute, aukeran.

³ Euskaraz dakiten sakandarrek erabilitako hizkuntza.

a) Maizenik erabilitako hizkuntza, generoaren arabera:

Gizonezkoek zein emakumezkoek euren ohiko komunikazioetan nagusiki gaztelania erabiltzen dute.

Gizonezkoek emakumezkoek baino gehiago erabiltzen dute euskara hizkuntza bakar modura. Emakumezkoek gizonezkoek baino maizago erabiltzen dituzte euskara eta gaztelania, batera.

Banaketa geografikoa:

Arakil eta Burunda: egoera eskualdearenaren antzekoa da.

Aranatzaldea:

Gizonezkoek eta emakumezkoek nagusiki euskara erabiltzen dute euren komunikazioetan (batik bat gizonezkoek).

Emakumezkoek gizonezkoek baino zertxobait gehiago erabiltzen dituzte euskara eta gaztelania, aukeran.

b) Hizkuntza batean edo bestean hitz egiterakoan gertatzen diren alderik handienek adinarekin dute zerikusia:

Biztanleen adinak gora egin ahala gehiago erabiltzen da gaztelania (35 urtetik 54 urte bitartekoen %70ek baino gehiagok; adin horretatik aurrera behera egiten du, %44,4 arte hain zuzen ere). Euskara soilik erabiltzen dutenak gazteenak eta zaharrenak dira.

Banaketa geografikoa:

Arakil eta Burunda: egoera eskualdearenaren antzekoa da.

Aranatzaldea: gehienek (bereziki gazteenek) euskara soilik erabiltzen dute.



Euskara: transmisioa eta erabilera


Inkestari erantzun diotenen euskaraz zer dakiten eta nola erabiltzen duten jakiteko, euskaldunak edo euskaraz ikasten ari direnak hartu dira kontuan bereziki.

3.1.- Euskararen transmisioa

Sakanan inkestari erantzun diotenen %68,5en lehen hizkuntza gaztelania da;

%24,6ena euskara da eta %6,7k gaztelania eta euskara darabiltzate.

8. grafikoa. Sakandarren lehen hizkuntza.



Iturria: Euskararen egoerari buruzko Sakanako azterlana. 2007


Banaketa geografikoa:

Arakil: gaztelania (%65,4); euskara (%24,7); gaztelania eta euskara (%9,5).

Aranatzaldea: euskara (%64,8); gaztelania (%25,8); euskara eta gaztelania (%9,4).

Burunda: gaztelania (%85etik gora); euskara (%10,3); gaztelania eta euskara (%4,4).

9. grafikoa. Arakildarren, aranaztarren eta burundarren lehen hizkuntza. (% bertikalak)



Iturria: Euskararen egoerari buruzko Sakanako azterlana. 2007

5. koadroa. Sakanakoen eta (Arakilgoen, Aranatzaldekoen eta Burundakoen) lehen hizkuntza, adinaren arabera. (% bertikalak)

Sakana	Adina				
	15 - 24 urte	25 - 34 urte	35 - 54 urte	55 - 64 urte	65 urte edo gehiago
Sakana					
Euskara	31,3	22,1	19,0	27,9	30,1
Euskara eta gaztelania	11,9	6,3	6,7	1,7	7,2
Gaztelania	56,4	71,6	74,4	70,4	62,3
Ed/Ee	0,4	0,0	0,0	0,0	0,4
Arakil					
Euskara	29,1	20,7	19,3	28,8	32,2
Euskara eta gaztelania	20,9	6,3	7,0	6,3	12,0
Gaztelania	48,7	73,0	73,7	64,8	54,2
Ed/Ee	1,4	0,0	0,0	0,0	1,6
Aranatzaldea					
Euskara	70,5	61,4	58,8	72,0	68,7
Euskara eta gaztelania	6,0	12,6	12,7	0,0	9,7
Gaztelania	23,5	26,0	28,5	28,0	21,6
Burunda					
Euskara	18,0	8,3	5,5	9,5	15,6
Euskara eta gaztelania	9,4	4,0	4,6	0,0	4,4
Gaztelania	72,7	87,7	89,9	90,5	80,0

Iturria: Euskararen egoerari buruzko Sakanako azterlana. 2007

a) Adina:

Gazteenak eta zaharrenak dira hein handi batean euskara lehen hizkuntza izan dutenak (euskarari dagokionez, gaur egun adinekoek dituzten gaitasunak mugaturik daude):

Euskara lehen hizkuntza dute:

15 urtetik 24 urte bitartekoak %31,3k.

35 urtetik 54 urte bitartekoak %19k.

65 urtetik gorakoak %30,1ek.

Euskara transmititzeko moduak:

Euskaraz hitz egiten duten edo zuten gurasoak⁴: %30.

Ama hizkuntza⁵: %24,6

Euskara beren ondorengoei transmititu ez dieten guraso euskaldunak: %5,4.⁶

Hizkuntzaren berreskuratze-maila familiako transmisio-indizea baino handiagoa da.⁷

Banaketa geografikoa:**Arakil:**

Euskaraz dakiten gurasoak: %32,4.

Euskara ama hizkuntza duten gurasoak: %24,7.

Euskara transmititu ez duten gurasoak: %7,7.

Aranatzaldea:

Euskaraz dakiten gurasoak: %66,1.

Euskara ama hizkuntza duten gurasoak: %64,8.

Hizkuntza transmititzerakoan izaniko galera: %2tik behera.

Burunda:

Euskaraz hitz egiten duten gurasoak: %16.

Euskara ama hizkuntza duten gurasoak: %10.

Euskara transmititu ez duten gurasoak: %5,7.

Euskara transmititzerakoan izaniko galera: %33tik gora.⁸

⁴ Kontuan hartu dira soilik euskaraz hitz egiten duten edo zuten gurasoak, biak ala biak.

⁵ Kontuan hartu dira soilik euskara ama hizkuntza bakarria izan duten kasuak.

⁶ [Euskaraz hitz egiten duten edo zuten gurasoen ehunekoa] - [Euskara ama hizkuntza duen biztanleriaren ehunekoa].


⁷ [Inkestari erantzun dioten euskaldunen %42,1] - [Euskaraz hitz egiten duten edo zuten gurasoak].

⁸ Aldiz, inkestari erantzun diotenen seme-alaben %36,4k badaki euskaraz. Horrek erakusten du belaunaldi horretan euskara zertxobait berreskuratuta dela.

3.2.- Euskaldunak euskaraz zenbat mintzatzen diren

Inkestari erantzun dioten lau euskaldunetatik batek euskaraz hitz egiten du ahal duen bakoitzean.

10. grafikoa. Aukera duzunean euskara erabiltzen duzu? (%)



Iturria: Euskararen egoerari buruzko Sakanako azterlana. 2007

Euskara jakiteari dagokionez: *euskaldun zaharrak* (%80,3); *euskaldun berriak* (%57,7) eta euskaraz ikasten ari direnak (%57,3).

Generoari dagokionez: ez dago azpimarratzeko moduko alderik (aukera duten bakoitzean euskara erabiltzen duten emakumezkoak gizonezkoak baino zertxobait gehiago dira).

Adinari dagokionez: 55 urtetik gora ohikoagoa da euskara erabiltzea (%80tik gora dira hori egiten dutenak).


Eremuari dagokionez: **Aranatzaldea:** %85,9; **Arakil:** %69,9; **Burunda:** %63.

Inkestari erantzun dioten euskaldun gehienek ez dute arazorik euskara inongo gune jakinetan erabiltzeko. Hori hala izanik ere, zailagoa da euskara erabiltzea Administrazio publikoan (Nafarroako Gobernuan, osasungintzan, hezkuntzan, etab.) eta Iruñean eta bere zerbitzuetan (saltokietan, zerbitzu publikoetan, etab.).

6. koadroa. Sakandarren (eta arakildarren, aranaztarren eta burundarren) euskararen erabilera, sexuaren eta adinaren arabera. (% bertikalak)

	Sexua		Adina				
	Gizonezkoa	Emakumezkoa	15 - 24 urte	25 - 34 urte	35 - 54 urte	55 - 64 urte	65 urte edo gehiago
Sakana							
Euskaraz egiten du ahal duen guztietan	71,6	74,9	70,5	68,0	70,7	83,8	82,6
Ez du euskaraz egiten ahal duen guztietan	28,4	25,1	29,5	32,0	29,3	16,2	17,4
Arakil							
Euskaraz egiten du ahal duen guztietan	67,2	72,8	64,1	69,7	64,3	90,4	79,4
Ez du euskaraz egiten ahal duen guztietan	32,8	27,2	35,9	30,3	35,7	9,6	20,6
Aranatzaldea							
Euskaraz egiten du ahal duen guztietan	82,9	89,1	92,6	78,1	82,8	82	94,3
Ez du euskaraz egiten ahal duen guztietan	17,1	10,9	7,4	21,9	17,2	18	5,7
Burunda							
Euskaraz egiten du ahal duen guztietan	59,4	65	62,9	60,1	62,3	78,7	65,6
Ez du euskaraz egiten ahal duen guztietan	40,6	35	37,1	39,9	37,7	21,3	34,4

Iturria: Euskararen egoerari buruzko Sakanako azterlana. 2007

11. grafikoa. Euskara erabiltzea zail gertatzen den guneak. (Oinarria: euskaraz dakitenak)⁹

Iturria: Euskararen egoerari buruzko Sakana azterlana. 2007


⁹ Ehuneko batura ez da 100, erantzun bat baino gehiago onartzen duen galdera delako.

Euskara zein esparrutan erabiltzen den¹⁰:

Komunikazioan, euskara gehiago erabiltzen da lagunekin, hurbilen ez dauden familiakoekin eta merkatariekin.

Komunikazioan, euskara ez da erabiltzen osasun arloko, banketxeko eta udaleko langileekin.

12. grafikoa. Normalki hitz egiten al duzu euskaraz honako hauekin? (Oinarria: euskaldunak edo euskalduntzen ari direnak)




Iturria: Euskararen egoerari buruzko Sakanako azterlana. 2007

¹⁰ Euskaldunak edo euskalduntzen ari direnak hartu dira kontuan.

Euskara komunikaziorako hizkuntzarik arruntena da familiaren inguruan (gurasoekin, anai-arrebekin, bikoteen artean, etab.): %41,6.

Euskara komunikaziorako hizkuntza harreman sozialetan (lagunekin, lankideekin, apaizarekin, merkatariekin): %25,7.

13. grafikoa. Euskaraz normalki zein pertsonarekin mintzatzen den. (baiezko erantzun guztien gaineko %-a) (Oinarria: euskaldunak edo euskalduntzen ari direnak)



Iturria: Euskararen egoerari buruzko Sakanako azterlana. 2007

Euskara gutxi erabiltzen da esparru formalean (osasun zerbitzuetan, irakasleen artean, udaleko langileekin, merkatariekin, banketxeetan, Foru Administrazioan, etab.): (%36,6).

Sakandar euskaldunek oharrak, ordainagiriak, panfletoak, gutunak, etab. ele bitan (euskaraz eta gaztelaniaz) jasotzen dituztenean, honelaxe irakurtzen dituzte:

Gaztelaniaz: %46,4

Euskaraz: %29,2

Bi hizkuntzatarako edozeinetan, aukeran: %24,4.

Generoari dagokionez, gizonaek emakumezkoek baino gehiago irakurtzen dituzte idazki horiek euskaraz.

Adinaren arabera:

Gazteenek nagusiki irakurtzen dituzte agiri mota horiek euskaraz.


Adinean gora egin ahala:

Gaztelaniaz irakurtzen dutenak gehiago dira,

Euskaraz irakurtzen dutenak gutxiago dira (65 urtetik gora zertxobait egiten du gora).

Kokapen geografikoa: idazkiak euskaraz irakurtzen dituzten gehienak **Aranatzaldean** bizi dira eta gaztelaniaz irakurtzen dituzten gehienak **Burundan** bizi dira, batez ere.

14. grafikoa. Ele bitan jasotako oharrak, ordainagiriak, panfletoak, gutunak, etab. euskaraz irakurri beharrean gaztelaniaz irakurtzeko zergatiak. (%) (Oinarria: euskaldunak edo euskalduntzen ari direnak, hots, ele bitan jasotako oharrak, ordainagiriak, panfletoak, gutunak eta abar gaztelaniaz irakurtzen dituztela aitortzen dutenak)




Iturria: Euskararen egoerari buruzko Sakanako azterlana. 2007

Euskaraz egindako jarduerak

Inkestari erantzun diotenen arabera, honako hauek dira euskaraz nagusiki egin daitezkeen jarduerak: TB euskaraz ikustea, prentsa irakurtzea, irratia euskaraz entzutea eta musika entzutea.


15. grafikoa. Euskaraz egindako jarduerak (Euskaldunak edo euskalduntzen ari direnak).



Iturria: Euskararen egoerari buruzko Sakanako azterlana. 2007

Adinaren arabera, 35 urtetik 54 urte bitarte dituztenek egiten dituzte maizenik jarduera horiek euskaraz. Sakanan edukiak euskaraz emateaz gainera maizenik entzuten diren irratia honako hauek dira: *Euskadi Irratia*, *E-gaztea* eta *Beleixe Irratia*.

16. grafikoa. Sakandarrek entzuten dituzten irratia, hots, nagusiki euskarazko programazioa dutenak. (Oinarria: euskaldunak edo euskalduntzen ari direnak)



Iturria: Euskararen egoerari buruzko Sakanako azterlana. 2007

Entzulearen profilari dagokionez:

Euskadi irratia: gehienak gizonezkoak dira eta 35 urtetik 54 urte bitartean dituzte.

E-gaztea: gehienak emakumezkoak dira eta 15 urtetik 34 urte bitartean dituzte.


Belexe irratia: gehienak gizonezkoak dira eta 35 urtetik 54 urte bitartean dituzte.

Eremuaren arabera:

Euskadi Irratia eta *Belexe Irratia:* batez ere Aranatzaldean entzuten dira.

E-gaztea: gehienbat Burundan entzuten da.

17. grafikoa. Sakandarrek nagusiki ikusten dituzten telebista-kateak, hots, euskarazko programazioa dutenak. (Oinarria: euskaldunak edo euskalduntzen ari direnak)



Iturria: Euskararen egoerari buruzko Sakanako azterlana. 2007


ETB maizago ikusten da **Aranatzaldean**: gizonezkoek zein emakumezkoek ikusten dute, proportzio be-
rean, nahiz eta zertxobait gehiago diren emakumezkoak. 42,3 urteko batez besteko adina dute ikusleek.

Euskaraz idatzitako prentsari edo euskaraz idatzitako artikulua dituen prentsari dagokionez:

Inkestari erantzun dioten euskaldunen parte handi batek *Guaixe* eskualdeko aldizkaria irakurtzen du. *Gara* eta *Berria* egunkariak dira hurrenak, tarte handi samarrera.

Inkestari erantzun diotenen %17k esan dute ez dutela aipatutako aldizkari edo egunkari bakar bat ere sekula irakurri.

18. grafikoa. Sakandarrek nagusiki irakurtzen dituzten egunkari/aldizkariak, hots, euskarazko edukiak dituztenak. (% bertikalak)
(Oinarria: euskaldunak edo euskalduntzen ari direnak)



Iturria: Euskararen egoerari buruzko Sakanako azterlana. 2007

Alfabetatu gabeko euskaldunak

Sakanan bada *euskaldun zaharrek* eta *euskaldun berriek* osatutako jende multzoa, euren buruak euskaldun sentitu arren, alfabetatu gabe dagoena¹¹.

7. koadroa. Alfabetatu gabeko euskaldun zaharrak eta euskaldun berriak. (Oinarria: euskaldunak edo euskalduntzen ari direnak)

	z.a.	%
Alfabetatu gabeko euskaldun zaharrak	2.358	73,3
Alfabetatu gabeko euskaldun berriak	671	20,9
Euskalduntzen ari direnak	187	5,8
GUZTIRA	3.216	100

Iturria: Euskararen egoerari buruzko Sakanako azterlana. 2007

¹¹ Azterlan honen ondorioetarako, gaur egun euskara ikasten ari direnak gehitu zaizkio multzo horri.

Ezaugarri nagusiak:

Alfabetatze-ikastaroetara joan nahi duen jende multzoa: %27,3.

Alfabetatu nahi ez duen jende multzoa: %70,7.

- Gehienak Aranatzaldean bizi dira eta nagusiki emakumezkoak dira. Zenbat eta adin handiagoa, hainbat eta alfabetatzeko interes txikiagoa.
- Gazteenek alfabetatzeko zaletasun handiagoa dute (emakumezkoen eta Burundan bizi direnen artean).

Gaur egun alfabetatzen ari direnak emakumezkoak dira eta haien artean gazteenak.

Alfabetatzeko interesik eza zuritzeko argudioak:


- Ikasten hasteko helduegia izatea: %43,7
- Alfabetatzeko ikastaroetara joateko astirik ez izatea: %30,3
- Bestelako faktoreak: interesik eza, hizkuntzaz dakiguna nahikotzat jotzea...

3.3.- Euskara eta euskaldun ez direnak

Euskaraz ez dakitenak edo euskaraz jakin eta gaur egun ahaztu dutenak inkestari erantzun diotenek %56,8 dira.

Inkestari erantzun dion jende multzo horren gehiengoak euskararen aldeko jarrera du.


19. grafikoa. Euskaraz jakin nahi zenuke? (%) (Oinarria: euskaldunak ez direnak)



Iturria: Euskararen egoerari buruzko Sakanako azterlana. 2007

Euskaraz ikasteko asmorik sendoena dutenek 35 urtetik 54 urte bitartean dituzte (euskara noizbait ikasteko ahalegina egin dutenak adin-tarte horretan daude; batez besteko adina 44 urte da).

20. grafikoa. Noizbait saiatu zara euskara ikasten? (%) (Oinarria: euskaldunak ez direnak)



Iturria: Euskararen egoerari buruzko Sakanako azterlana. 2007

Euskara ikasi ez izanaren arrazoiak:

Astirik ez izatea: %31

Ikasten hasteko helduegia dela uste izatea: %11,1

Euskara ikastearen zailtasuna: %9,8

Bere buruari galdetu ez izana: %9,1

Ahalegin handia egin behar izatea: %9.

Euskaraz ez dakitenen gehiengoak (%82,1ek) uste du euskaraz ez jakiteak ez diela eguneroko lanean eragozpenik sortzen.

%15,4k adierazi du euskaraz ez jakiteak mugatu egiten dizkiela harremanak:

35 urtetik 54 bitarteko jendea da, Aranatzaldean bizi dira, hau da, euskaldun kopururik handiena duen eremuan.

4 Euskara eskualdean sustatzea

Atal honetan aztertu da sakandarrek zer uste duten honako hauen gainean:


Eskualdean euskara sustatzeko egiten diren jarduerak.

Jarduera horietan parte hartzea.

Sakandarrek Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuaren gainean egiten duten balioespena.

Inkestari erantzun diotenen %63,9k positiboki balioesten ditu euskara sustatzeko egiten diren jarduerak, %19,8k uste du ahalegin handiagoa egin beharko litzatekeela euskararen alde eta %13,5i berdin zaio. Bestalde, gutxiengo txiki baten ustez euskararen aldeko ekintza gehiegi egiten da edo zuzenean haien kontra dago (%1,5).

21. grafikoa. Euskara sustatzeko jardueren gaineko balioespena. (%)



Iturria: Euskararen egoerari buruzko Sakanako azterlana. 2007

Euskararen alde nahikoa egiten dela uste dutenetako gehienak **Burundan** bizi dira; 35 urtetik 54 urte dituzte eta *euskaldun berriak* edo euskararik ez dakitenak dira.


Euskara sustatzeko jardueren kopurua gehitu nahi duten gehienak **Aranatzaldean** bizi dira eta euskaraz ikasten ari dira; oro har, gazteenak dira. Hala ere, adinean gora egin ahala aldeko jarrera baretzen joaten da.

Bateko edo besteko jarrera duten pertsonarik gehienek 64 urte baino gehiago dituzte eta ez dakite euskaraz.

Euskara sustatzeko lehentasunezko esparruak:

Euskara sustatzeko lehentasunezko esparruak honako lauki honetan ageri dira:

22. grafikoa. Euskara bulizatzerakoan premiaz jardun beharreko esparruak. (%)




Iturria: Euskararen egoerari buruzko Sakanako azterlana. 2007

Euskara sustatzen ari diren jende talderik ezagunenak AEK eta *Bierrik Kultur Elkartea* dira.

4.1.- Herritarrek euskara sustatzeko lanetan parte hartzea

Inkestari erantzun diotenen erdiek baino gehiagok aktiboki edo noizbait hartu dute parte euskara sustatzeko lan edo ekitaldietan, hala nola *Korrikan*, *Nafarroa Oinez* eta abarretan.

23. grafikoa. Euskararen aldeko ekitaldietara joaten zara?



Iturria: Euskararen egoerari buruzko Sakanako azterlana. 2007

Euskara sustatzeko jardueretan parte hartzen dutenak...

Aranatzaldean bizi dira nagusiki.

Gehienak euskaldun berriak edo euskara ikasten ari dira.

Gehienbat gazteak dira; adinean gora egin ahala parte-hartzea jaitsiz joaten da.

Jarduera horietara joaten ez direnak...

Burundan bizi dira nagusiki.

Ez dakite euskaraz.

Zaharrenak dira.

Inkestari erantzun dioten pertsona gehienek ez dute aktiboki parte hartzen euskararen normalizazioa bultzatzeko edo normalizatzeko lanetan ere aritzen diren inongo jende-taldetan edo elkartetan (%65,1).

Gutxiengo batek adierazi du jende-talde hauetakoren bateko kidea dela: [Guraso Elkarteak, sindikatuak, Aizpea Kultur Elkarteak eta ikastolak].

4.2.- Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuaren balioespena

Inkestari erantzun diotenen %45,2k badaki badela Euskara Zerbitzua Sakanako Mankomunitatean.

Hala ere, %54,8k ez du ezagutzen.

Zerbitzu honen lana ezagunagoa da Aranatzaldean, euskaldun berrien eta zaharren artean eta 35 urtetik 54 bitarte dituen jendearengan.

Zerbitzu honen lana ez da hain ezaguna Burundan, euskara ez dakiten edo ikasten ari direnen artean eta gazteen eta helduen artean.

Euskara Zerbitzua ezagutzen dutenen balioespena:

Positiboa: %82,9


Hala-moduzkoa: %8,4

Txarra: %1

Ez daki / Ez du erantzuten: %7,7

Euskara Zerbitzuak egiten dituen jarduerak edota sustapenak grafiko honetan bildu dira:

24. grafikoa. Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak egiten dituen jarduerak edota sustapenak (jendeak gehien ezagutzen dituenak). (%)



Iturria: Euskararen egoerari buruzko Sakanako azterlana. 2007

Inkestari erantzun diotenen erdiek baino gehiagok (%55,2k) uko egin diote esateari beren ustez Euskara Zerbitzuko agendan zein jarduerak izan beharko lukeen lehentasuna.

Erantzun dutenen arteko %14,4k esan dute euskararen ezaguera eta erabilera bultzatzeko jarduerari eman beharko liekeela lehentasuna Euskara Zerbitzuak, lan hori premiazkoa baita.

5 Herritarrek euskararen aurrean duten jarrera, eta etorkizuneko ikusmoldeak

Atal honetan balioetsi dira euskararen inguruko alderdirik esanguratsuenak, hala nola, euskararen erabilgarritasuna eta sakandarrek euskarari buruz dituzten iritziak eta jarrerak.


5.1.- Euskararen erabilgarritasuna

Sakandarren %26,4k uste du euskara gaztelania baino erabilgarriagoa dela eskualdean edo bizi diren eremuan.

%35,5ek uste du euskarak eta gaztelaniak erabilgarritasun bera dutela.

%37,5ek uste du euskara ez dela gaztelania bezain erabilgarria.

25. grafikoa. Euskararen erabilgarritasunaren balioespina eskualdean.



Iturria: Euskararen egoerari buruzko Sakanako azterlana. 2007

Adinari dagokionez, euskararen erabilgarritasunaren ustea –gaztelaniari dagokionez– jaisten doa inkestari erantzun dion jendearen adinak gora egiten duen heinean:

- Herritarrik gazteenak: %40,6
- 25 urtetik 34 urte bitartekoak: %24,4
- 35 urtetik 54 urte bitartekoak: %26,5
- 55 urtetik 64 urte bitartekoak: %25,4
- 65 urtetik gorakoak: %21,1

Generoaren arabera:

Emakumezkoak aldekoagoak dira eta, proportzioan, gizonezkoak baino gehiago dira euskara gaztelania bezain erabilgarria dela uste dutenak (%39,4 emakumezkoak eta %31,9 gizonezkoak). Emakumezkoen %28,8k uste du euskara erabilgarriagoa dela; gizonezkoak, aldiz, %24,2 dira.

Hiztun motaren ikuspuntutik begiraturik:

Euskara gaztelania bezain erabilgarria ez dela uste duten gehienek ez dakite euskaraz edo ikasten ari dira.

Euskara gaztelania baino erabilgarriagoa dela uste dutenak gehienbat euskaldun zaharrak dira.

Banaketa geografikoa:

Arakil:

Gizonezkoekin alderaturik, emakumezkoek euskararen erabilgarritasuna hobeki balioesten dute.

Gizonezko batzuek (emakumezkoek baino gehiagok) uste dute euskara gaztelania bezain erabilgarria dela.

Aranatzaldea:

Euskararen erabilgarritasunari dagokionez, emakumezkoek gizonezkoek baino jarrera positiboagoa dute. Gizonezkoek uste dute euskara gaztelania bezain erabilgarria dela edo erabilgarritasun handiagoa duela. *Euskaldun zaharrek* eta euskara ikasten ari direnek defendatzen dute euskararen erabilgarritasuna, gaztelaniaren aurrean.

Euskararik ez dakitenek bi aukerak ez dituzte baztertzen, antzeko proportzioan.

Burunda:

Aurreko paragrafoan generoari dagokionez deskribatutako joera errepikatzen da.


Euskara gutxi gorabehera gaztelania bezain erabilgarria da.

Euskaldun zahar eta *euskaldun berri* gehienek erabilgarritasun-maila bera ematen diote euskarari zein gaztelaniari.

Euskararik ez dakitenek uste dute euskara ez dela gaztelania bezain erabilgarria.

Euskara ikasten ari direnek bateko zein besteko iritzia dute, antzeko proportzioan.

26. grafikoa. Sakandarrek zer uste duten euskararen gainean. (%)



Iturria: Euskararen egoerari buruzko Sakanako azterlana. 2007*

5.2.- Euskararen etorkizuneko ikusmoldeak eskualdean

Inkestari erantzun dioten sakandarren %55,5i gustatuko litzaioke etorkizunean euskara eta gaztelania berdin mintzatzea eskualdean.

Herritarren %22,7k nahiago luke euskara gaztelania baino gehiago erabiltzea.

Herritarren %12,5 poztuko litzateke euskara soilik erabiliko balitz.

Inkestari erantzun dioten herritarren %6,7k nahiago luke gaztelania euskara baino gehiago mintzatzea eta gutxiengo txiki batek (herritarren %2,7k) gaztelania soilik erabiltzea nahiko luke.

Eskualdean euskarak izan beharreko etorkizunaren gaineko iritzia hiztun motaren arabera aldatzen da:

Euskaraz soilik edo euskaraz gaztelaniaz baino gehiago mintzatzearen alde dauden herritarren proportzioak gora egiten du euskararen jakite-mailak gora egiten duen heinean (euskaldun zaharrak dira aukera horren alde gehien egiten duten pertsonak).

Euskaraz eta gaztelaniaz berdin mintzatzeko aukeraren alde atera dira euskaraz ez dakitenak.

8. koadroa. Nola nahiko zenuke etorkizunean mintzatzea zure eskualdean? (hiztun motaren arabera (%))

	Hiztun mota			
	Ez daki euskaraz	Ikasten ari da	Euskaldun zaharra	Euskaldun berria
Euskaraz bakarrik	4,0	5,8	29,7	10,8
Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago	11,2	22,9	39,2	36,0
Bi hizkuntzak berdin	70,6	43,0	29,2	51,3
Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago	10,1	22,5	1,6	1,9
Gaztelaniaz bakarrik	4,2	5,8	0,4	0,0

Iturria: Euskararen egoerari buruzko Sakanako aztelana. 2007

Adinari dagokionez:

Eskualdean euskaraz soilik mintzatzearen alde daudenak herritar gazteenak dira. Adinean gora egin ahala, jende-multzoko horren adierazgarritasuna jaisten da (55 urtetik gora, aldiz, joerak gora egiten du). Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago mintzatzearen aldeko aukera gehienbat herritar gazteenek defendatzen dute. Hala ere, jarrera hori galtzen joaten da adinean gora egin ahala.

Bi hizkuntzak berdin mintzatzearen aldeko aukeraren alde dauden herritar gehienek 35 urtetik 54 urte bitartean dituzte.

Euskararen erabilera sakandarren artean nola bultzatu:

Euskaraz dakiena euskaraz mintza dadin kontzientziatuz: %35,8

Hautzarotik eta gaztarotik hasita euskararen erabilera bultzatuz: %7,2

Euskara bultzatuz irakaskuntzan eta irakaskuntzatik abiatuz: %6,0

Diruz lagundutako euskara ikastaroak eskainiz: %5,7

Beste modu batzuetan: %3.



Euskararen egoera Sakanan 2007

Azterlan soziolinguistikoa